
LOTSAGALDUA

Aurtengo udaran gertatua xeetasun guztiekin. Istori onen ardatza 5 urte betetako umea degu. Obeto esanda: lau illebeta falta 5 urterako. Idurre ipiñiko diogu izen, bere izena ori ez bada ere.

Idurre neskatxoa, bi urte luze, gaixorik egona degu, gerritik beera ieltzoz lotua. Ibili eta mogitu ezin. Oiñak motelak eta geldi; baiña, mingaiñan artu ditu anketan falta zaion indar guztiak...

Nai ditun guztiak egiten utzi eta laga diote. Bai, ba, zer egingo diozu gaixoari...? Ieltxotik bernak askatu diotenean, zeñek aguantau? Lenago egin ez ditunak, oraintxen danak batera. Biurri dabil.

Bere ama gaztea, gizaki urduria eta olatuaren mutur-muturrean doana, politika arazoetan bezala, euskeran ere. Eztabaidak ez dira falta etxean bi arazo auri buruzkoak guraso gazte eta zaarren artean.

Sendatu zan gure Idurre eta orain dira kontuak; errietan egiten diote okerkeri bakoitzeko eta erantzunik ematen laga ez. Baiña, berak asmakizuna asmatu du: errietan asten diran bakoitzeko, aopean asiko zaizu marmarrean:

—Aoiuaepeukepokerapa...

—Ixilik egongo al zera...!

—Apapuramaitokiopipurraaa...

—Ixilik egoteko...!

—M uumuikikokarakapupakaka...

—Baiña, ori zer da...?

Beetik gora, mamorruen ikuspegitik, amari begiratu eta, antxintxika eta arin-aranga pasillora iges dijoala:

—Ori...? Euskera batua.

ZUEK ERDERA...!

Beste batean, telefonoa deika: Rin, rin, rin...

—Zein da?

—Ni, Idurre.

—Ola, illobatxo, ondo zagoz?

—Oso ongi.

—Gure etxera etorriko zera?

—Bai orixe. Gustora.

—Amatxo etxian dago?

—Bai, etxian dago.

—Esango diozu telefonora etorteko?

—Bai, esango diot.

Ixil-unea. Badirudi telefonotik beste aldera ez dagoela iñor. Izekok:

—Idurre! Idurre! Or zagoz?

Telefonoa ixilik; ez du iñork erantzuten.

—Idurre! Mesedez, amaxori esan etorteko!

— *Qué tal estás, izeko?*

—Baiña... Idurre!

— *Qué tal te encuentras, izeko?*

—Baiña, Idurre! Zer izketa da ori? Esan amaxori etorteko!

—Bai, zuk neri erritan egin eta gero zuek, amatxo eta zu, beti erderaz telefonotik...